



Prensa oharra

**Ia 300 eskolatan 16.000 ikasleri baino gehiagori erakutsi dizkie
elikadura eta ohitura osasungarriak**

**EROSKI FUNDAZIOAK HIRUGARREN ALDIA DU
HEZIKETA PROGRAMA MARTXAN JARTZEN
DUENA, ETA ESKOLA BERRIAK ANTOLATU DITU
UNICEF-EKIN ETA WWF-REKIN LANKIDETZAN**

- 'Nire Lurreko produktuak' izeneko tailer praktiko bat hasi du, haurrek beren komunitateko nekazaritzako elikagaien jatorria ekoizleen lantokietan ezagutzeko; hala, tokiko produktuen garrantziaz jabetuko dira
- 'Nutrizioa beste herrialde batzuetan' eta 'elikadura iraunkorra' dira beste bi lan saio, UNICEFekin eta WWFrekin lankidetzan eginak
- **Interesatuta dauden eskolek izena eman dezakete www.escueladealimentacion.es webgunean**

Elorrio, 2014ko ekainaren 11.- [EROSKI Fundazioa](http://www.eroski.es) elikadura eta bizi ohitura osasungarriak hurrengan bultzatzeko afanean, beste urte batez erabaki du Heziketa Programa erabiltzea eskoletarako. Aurten, hirugarren aldia da, 2012an hasi zenetik, eta nola ikasleei hala irakasleei eskaintzen dizkie ikasgai berriak, jarduera gehiago eta tailer praktikoak. Hainbat arlotako —medikuntza, dietetika eta nutrizioa, psikopedagogia eta pedagogia— langilez osatutako batzorde zientifiko batek prestatu du programa.

Hirurehun bat ikastetxetan, 16.000 haurrek baino gehiagok hartu dute parte Elikadura Eta Ohitura Osasungarriak Heziketa Programan, eta "oraindik handitzen eta hobetzen ari dira edukiak, irakasle aritu direnen balorazioak eta ekarpenak kontuan hartuta. Balio hauek behar bezala transmititzeko estrategiarik onena da programan dagoeneko parte hartu duten ikastetxeen eskarmentuak aprobetxatzea", esan du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriotxoak.

Saio berriak, UNICEFekin eta WWFrekin lankidetzan

Orain arte bezala, ikasgelako saio teorikoak eta tailer praktikoak konbinatuta, ikastetxeetako Heziketa Programak ikasgai berriak dakartza ikasleei heziketa hobea emateko elikadura eta bizi ohitura osasungarrien inguruan. Hala, hiru saio berri egongo dira ikasleen jakintza handitzeko: 'Nire Lurreko produktuak', 'Nutrizioa

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko Zuzendaritza
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



munduan' (UNICEFekin lankidetzan) eta 'nola elikatu eta zaindu nire mundua' (WWFren laguntzarekin). "Gure ustez, inportantea da tokiko produktuen onurak zabaltzea, baina aldi berean, beharrezkoa da zenbait herrialdetan daukaten egoeraz sakontzea eta gure mundua zaindu beharra dagoela kontzientziaztea", esan du Alejandro Martinez Berriotxoak.

Zortzi saiotan banatuko dituzte eskolak, eta beste bi tailer izango dira ikasitakoa praktikatzeko. 'Erosketa egiten menu osasungarria prestatzeko' ohikoaz gainera, aldi honetan 'Nire Lurreko produktuak' izeneko gehitu dute, haurrek beren komunitateko nekazaritzako elikagaien jatorria ekoizleen lantokietan ezagutzeko; hala, tokiko ekoizpenak duen garrantziaz jabetuko dira.

Elikadura osasungarria sustatzen, ariketak egiten eta bizi ohitura osasungarriak hartzen "modu dibertigarrian ikasi behar dute Lehen Hezkuntzako haurrek (programa 4. eta 5. mailakoentzako da funtsean). Horretarako, Tix eta Loy pertsonaiek transmitituko dituzte aurten ere balio horiek guztiak, modu jostagarrian", amaitu du EROSKI Fundazioko zuzendariak.

Aurtengoan parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete webgune honetan: www.escueladealimentacion.es.

EROSKI Fundazioaz

EROSKI Fundazioa 1997an sortu zuen EROSKI, kontsumitzaileak sustatzeko, babesteko eta, bereziki, prestatzeko eta haien jakintza handitzeko; kooperatiben arteko harremanak bultzatzeko; heziketa, kultura eta lan mundua sustatzeko, bereziki kontsumerista arloan eta ingurunearekin eta ingurumenarekin konpromisoan; elkartasuna eta laguntza sustatzeko; eta ikerketa, garapena eta berrikuntza indartzeko kontsumerismoaren, elikaduraren, ingurumenaren eta bizi ohitura osasungarrien aldetik.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko Zuzendaritza
OSCAR GONZÁLEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es